



Aurretiazko genero eraginaren txostena

Informe de evaluación previa de impacto de genero

Foru Dekretu proiekta, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuko Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena

Proyecto de Decreto Foral de modificación del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto



txostenak atal hauetan eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

2. Arau aldaketak

Euskal autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak, abenduaren 11ko 398/2020 epaian, bertan behera utzi zuen erabilera turistikoko etxebizitzen erabileraren lagapenari buruzko informazioa emateko betebeharrari buruzko erregulazioa (72 ter artikulua - 47/2013 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena).

2. Modificaciones normativas

La Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en la sentencia 398/2020, de 11 de diciembre, anuló la regulación relativa a la obligación de informar sobre la cesión de uso de viviendas para uso turístico (artículo 72 ter - Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales).

Bertan behera uzteko arrazoia prozedurazko omisio bat da: ez betetzea Europako

El motivo de la anulación es una omisión procedural en su aprobación: no cumplir



Batzordeari eman beharreko informazio betebehararekin, araudi teknikoen eta informazioaren gizartearen zerbitzuei buruzko arauen arloan.

con la obligación de información a la Comisión Europea, en materia de reglamentaciones técnicas y de reglas relativas a los servicios de la sociedad de la información.

Proposatutako prozeduraren xedea da informazio betebehar hori berriro ezartzea, bertan behera utzitako xedapenean ezarritako modu berean, baina aurreko prozeduran egin ez zen izapidea kontuan hartuta.

El procedimiento propuesto tiene por objeto establecer nuevamente dicha obligación de información, en los mismos términos que la establecida en la disposición anulada, si bien, teniendo en cuenta el trámite omitido en el procedimiento anterior.

Gaingiroki, berariazko informazio obligazio bat ezartzen da erabilera turistikoko etxebizitzen errentamendu edo lagapenetan bitartekari diren pertsona edo entitateentzat eta, bereziki, plataforma kolaboratiboak deitutakoentzat.

A grandes rasgos, se establece una obligación de información específica para las personas o entidades, en particular, para las denominadas plataformas colaborativas, que intermedien en el arrendamiento o cesión de viviendas para usos turísticos.

Horrela, kontrol bat ezartzen da internet eta sare sozialen etengabeko erabilerak berekin ekarri dituen negocio berrien eremuan. Izatez, zerga iruzurrari aurre egiteko neurri bat izango litzateke.

Así, se establece un control dentro del ámbito de los nuevos negocios surgidos con la proliferación del uso de internet y las redes sociales. Se trata así de una medida preventiva de lucha contra el fraude fiscal.

Ondorio horietarako, erabilera turistikoko etxebizitzen erabilera lagapenzat hartuko da altzariz hornitutako eta berehala erabiltzeko moduko etxebizitza baten erabilera osorik edo

A estos efectos, se entiende por cesión de uso de viviendas para usos turísticos la cesión temporal de uso de la totalidad o parte de una vivienda amueblada y equipada



partez lagatzea aldi baterako, lagapena merkaturatu edo sustatzeko erabiltzen den kanala edozein dela ere, izan helburua doakoa izan kostu bidezkoa.

Kontzeptu horretatik kanko geratzen dira berariazko araudiari lotuta dauden zenbait lagapen, besteak beste, honako hauek: Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean aipatzen diren etxebizitza errentamenduak eta etxebizitza errentamendu partzialak; turismo ostatuak; eta ondasun higiezin en txandakako aprobetxamendu eskubidea.

3. Genero eragina

3.1 Genero egokitasuna

Foru dekretu proiektu honen xedea da aldaketak sartzea zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutakoan. Zehazki, turismo erabilerarako etxebizitzen errentamenduan edo lagapenean bitartekari aritzen diren pertsonek edo erakundeek informazio espezifiko emateko betebeharrari dagokionez.

en condiciones de uso inmediato, cualquiera que sea el canal a través del cual se comercialice o promocione y realizada con finalidad gratuita u onerosa.

Quedan excluidas del citado concepto ciertas cesiones sujetas a normativa específica, entre otras, los arrendamientos de vivienda así como los subarriendos parciales de vivienda referidos en la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos; los alojamientos turísticos; y el derecho de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles.

3. Impacto de género

3.1 Pertinencia de género

El presente proyecto de decreto foral tiene por objeto modificar el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre. Concretamente, en relación a la obligación de información específica para las personas o entidades que intermedien en el arrendamiento o cesión de viviendas para usos turísticos.

Eragina izango du, hasiera batean eta modu zuzenean, pertsona edo entitate guzti horietan.

Afectará, en principio y de manera directa, a todas esas personas o entidades.

Hortaz:

- amaierako talde hartzalearen barruan pertsona fisikoak daude.
- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Beraz, ondorioztatu behar da egokia dela arau aurreproiekta genero ikuspegitik aztertzea.

Por tanto:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.
- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Por tanto, se determina que es pertinente el análisis de género del anteproyecto normativo.

3.2 Genero eraginaren balorazioa

3.2.1. Hasierako egoera

Lehenagotik, 179 eredu – “Erabilera turistikoko etxebizitzen lagapenari buruzko aitorpen informatiboa” indarrean egon zen 2019/01/01etik Euskal Autonomia Erkidegoko JANK deuseztatu arte.

Kontuan izan behar da eredu hori aurkezteko betebeharrok, helbide fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten eta erabilera

3.2 Valoración del impacto de género

3.2.1 Situación inicial

Con anterioridad, el modelo 179 – “Declaración informativa de la cesión de uso de viviendas para uso turístico” estuvo en vigor desde el 01/01/2019 hasta su anulación por parte del TSJ del País Vasco.

Hay que tener en cuenta que la obligación de presentación de dicho modelo afecta a personas o entidades que tengan su



turistikorako etxebizitzen errentamenduan edo lagapenean bitartekari diren pertsonei edo erakundeei eragiten diela.

Eredu hori indarrean egon zen aldia aztertuta, guztira 5 aitortzailek aurkeztu zuten aitorpena. Horietatik, 4k antolatzeko egitura bezala pertsona juridiko bat erabili zuten; eta 1ek soilik egin zuen pertsona fisiko bezala.

domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y que intermedien en el arrendamiento o cesión de viviendas para usos turísticos.

Analizando el periodo que estuvo en vigor dicho modelo, se observa que presentaron la declaración un total de 5 declarantes. De las cuales, 4 lo hicieron utilizando como estructura organizativa una persona jurídica; y, únicamente 1 lo hizo como persona física.

3.2.2 Proposatutako neurrien eragina

Aldaketa proiektuaren helburu bakarra informazio eredu bat aurkezteko betebeharra da, erabilera turistikoko etxebizitzen errentamenduan edo lagapenean bitartekaritza eragiketa jakin batzuetarako egin izanaren ondorioz.

Hasiera batean, eta eraginda aterako den pertsona kopurua ikusita, badirudi, informazio obligazio hori ezartzeak, ez duela inongo eragin zuen nabarmenik izango emakumezkoen eta gizonezkoen egoeran gain.

3.2.2 Efectos de las modificaciones propuestas

El objetivo del proyecto de modificación se circunscribe únicamente a la obligación de presentación de un modelo informativo, como consecuencia de haber realizado para determinadas operaciones de intermediación en el arrendamiento o cesión de viviendas para usos turísticos.

En un principio, y viendo el número de personas afectadas, establecer esa obligación de información, no parece que tenga un efecto directo significativo en la situación de mujeres y hombres.

Halere, kontuan izanda bere xedea iruzurraren aurka borrokan jardutea dela, proposatutako aldaketak eraginkorragoak egingo ditu jarduketa tributarioak, eta horiek, azkenean, positiboki eragingo dute zerga sistemaren funtzionamendu orokorrean.

Si bien, y teniendo en cuenta que el objetivo de dicha medida es luchar contra el fraude fiscal, la modificación propuesta provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitutira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Itunaren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminología eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2021eko ekainaren 16a

San Sebastián, a 16 de junio de 2021

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFÉ SECCIÓN DE ESTUDIOS**